

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Garaipenaren fasea jokabidean hasten da

Denborak aurrera egin ahala, 2009ko urtarri-leko GARA Forum hura, ordezkari politiko bati jendaurrean eginiko elkarrizketa luze-txo bat baino askoz gehiago izan zela ikasi genuen. Bertan zelai handian erein zituen Arnaldo Otegia ezker abertzalearen estrate-gia berriaren haziak, ordura arte baratza txikian baino lantzen ez zena. Pasa den larunbatean Kursaaletan bertan Otegia berak egindako ariketa ere orduko hura bezain sakona izan dela eta uzta oparoa ekar dezakeelakoan nago (hiru bider handiagoa zen areto batean, portzierto, eta antolakuntza maila txalogarriarekin, zorionak lagunok!).

Bigarren "iraultza" hau ez da estrategia kontuetan kokatzen. Ez da behar. Duela zazpi urtekoak garbi seinaltatu zuen bidea (alde horretatik, gaur Durangon amaitzen den Abian prozesuak ere ez du aurkikuntza handirik ekarriko, bide hori zikinkeriaz garbitu eta hobeki seinaleztatzea akaso). Duela astebate Otegiren hitzetan soinu berria zuenak, ordea, jokabideari, formei, aldarteari, bide hori ibiltzeko moduari dago-kio. Eta hala ere, ez da bestea baino garrantzi gutxiagokoa, estrategia eraginkorrak gar-tzeko modu eraginkorra ere exijitzen duelako.

Bitxia bada ere, Euskal Herriko egoera iraultzeko as-moa dutenentzat, 2009an zeuden eta 2016an dauden baldintza objektiboak oso antzekoak direla esan daite-ke (egun ditugunak hobeak ez badira...: horra hor Nafarroako erregimenaren porrota, Ipar Euskal Herriko era-kundetze prozesua, Estatuaren krisiaren larriagotzea, indar politiko berrien agerpena, Eskoziak ezarritako au-rrekaria, Kataluniako prozesua, Kolonbiako konponbide eredua...). Hori dela eta, estrategia berriak gero eta aukera gehiago ditu. Baina, aldi berean, hori abiatzeko arazoak, gabeziak eta ezintasunak agerikoak izan dira zazpi urte hauetan zehar, eta hori guztia konpondu nahi bada, ez da kanpora begiratu behar, barrura baizik.

(Lerro hauetan auziari heltzeko luzeegia litzateke hausnarketa, baina noizbait aztertu beharko litzateke tal-ka armatuaren aroaren bukaerak ezker abertzalearen hainbat balio nolatan eta zergatik ezkutatatu, desitxuratu eta ezabatu dituen. Nola, Andoni Olariaga filosofoari Sustrai Colinak egin berri dion elkarrizketa aski interes-

garrian aipatzen duenez, «jende bat mundurik gabe gel-ditu den». Itxi parentesia).

Eta ze berri dakar, ba, Otegia? Aipamen iraultzaile uga-ri, eta guztiak egiteko moduari –are gehiago, balioei– da-gozkionak. Esate baterako, gu ez garela «haiek bezalakoa-k», eta, ondorioz, ezberdin jokatu beharko genukeela; arerioen aurrean ere, atsegina izatea behar-beharrezkoa dela; barne desadostasunak, «hil ala biziko» jo baino, na-turalago eta dramatismorik gabe hartu beharko lirateke-ela; borroka egitearen alaitasuna berreskuratu egin be-harko litzatekeela; zoriontsu izatearen eskubidea egon badela, eta zoriontasuna gaur eta hemen bilatu beharko litzatekeela, utopia lortzeko urrutiko bidea jorratzen den bitartean... Kursaaletakoaren ondoren batek baino gehia-gok hori guztia *naif* samartzat jo badu ere, zerrenda ez da Stockholmeko sindromeak jotako norbaiten ameske-ria, ondokoekin aurrera egiteko eta bestaldekoak seduzi-

Batek baino gehiagok «naif» samartzat jo badu ere, bigarren iraultza Otegiren ideia berriotan dago: arerioa bezalakoa ez izatea, atsegin jokatzea, desadostasunak normal hartzea, alaitasunez borrokatzea...

tzeko beharrezko ekintza politikoko gutxieneko progra-ma baizik. Irabazteak eskatzen dituen balioak, alegia.

Ez da Otegi besteentzako aholkuak eman eta bere bu-ruari ariketarik jartzen ez dion horietarikoa. Hortaz, no-rabide bereko joera berriak ekarri ditu euskal politika-gintzara, espetxetik atera bezain laster. Biktimismoaren tentazio erraza alboratu du, ohiko alderdikieretatik urrun kokatu da, hauteskundeak izkinaren bueltan iza-nagatik ere epe luzera begira mintzo da, etxe barruan arazo ugari izan arren herri guztia du buruan, batzuetan berarentzat kaltegarri gerta zatekeen arren aurpegia eman eta benetan uste duena, bere egia, esan du... Horre-kin guztiarekin nabarmen igo da eztabaida politikoaren maila aste eskasetan, dezente zailago egiten baitu orain arteko txikikeria, alderdikeria eta itxurakeria baliatzen segitzea. Balioen garrantzia, berriz ere. •